

## ARRISKU OROKORRAK

- ❖ Objektuek harrapatzea edo objektuen artean harrapatuta geratzea.
- ❖ Objektuen edo eskuko erreminten kolpeak.
- ❖ Erredurak.
- ❖ Zatiak edota partikulak jaurtitzea.
- ❖ Maila berean eta maila batetik beste batera erortzea.
- ❖ Askatutako objektuak erortzea.
- ❖ Gehiegizko esfortzuak.
- ❖ Produktu kimikoen eragindako intoxikazioa.
- ❖ Larruzaleko lesioak: erreakzio alergiko akuatuak intsektuen zitzaden ondorioz, gai erresumingarriak eta produktu kimikoak ukitzea. Fotodermatosia eguzkitan egotearen ondorioz.
- ❖ Arnasbideetako gaitzak, ureztatzeko ur kutsatuen, polenaren, zoruan eta landareetan dauden mikroorganismoen eta pestiziden eraginpean egotearen ondorioz.
- ❖ Landareekin edo landare zatiekin egindako ebakiak eta ziztadak, eta lanabes zikinekin egindakoak.
- ❖ Zarata eta bibrazioen eraginpean egotea, tresna mekanikoak eta industriako makinak erabiltzerakoan.
- ❖ Mikrotraumatismoak.
- ❖ Bero kolpea



**EZ**



**BAI**

## PREBENTZIO NEURRIAK

### OROKORRAK

- ❖ Tresnak edota makinak erabili aurretik, egiaztatu nola dauden.

- ❖ Tresnak edota makinak gaizki badaude edo akatsen bat badute, jakinarazi berehala arduradunari.
- ❖ Lanpostuak txukun eta garbi eduki.
- ❖ Derrigor erabili norbera babesteko ekipamenduak eta enpresak lanerako emandako arropak, eta eduki beti egoera onean, erabiltzeko moduan.
- ❖ Tresnak bakarrik diseinatu ziren helburuetarako erabili dira.
- ❖ Tresna zorrotzak beti segurtasun zorro egokietan sartuta garraiatuko dira.
- ❖ Eskularruak erabili larruzalean ebakiak edo narritadurak eragin dezaketen zeregin guztietan.
- ❖ Lanean gauden tokian zorua bustita badago, uretako botak erabiliko ditugu.
- ❖ Saiatuko gara eguzkitan ez egoten burua eta gorputza egoki babestuta eduki gabe.
- ❖ Ez ditugu inoiz batera gordeko ongarriak eta erregaiak. Bien konbinazioak gai leherkorak eragin ditzake.

### PRODUKTU FITOSANITARIOAK APLIKATZEN DITUZTENENTZAT

- ❖ Lan hau bakarrik enpresaren baimena dutenek egingo dute, eta, dagokion Autonomia Erkidegoak markatzen dituen baldintzen arabera manipulatzailer txartela behar bada, txartel hori dutenek ere bai.
- ❖ Produktu fitosanitarioen ontziak beti etiketarekin egongo dira, eta etiketa beti irakurtzeko moduan egongo da; etiketak dioena ezagutu behar da eta fabrikatzailearen jarraibideak aplikatu.
- ❖ Legeak baimendutako produktuak baino ez dira erabiliko, eta, ahal bada, toxikotasun txikiagokoak.
- ❖ Fumigatzaile guztiei osasun azterketa egingo zaie nahitaez.
- ❖ Ekipoak erabili aurretik ikuskatu egingo dira, konexioak, balbulak, gomak eta bestelakoak ondo daudela egiaztatzeko.
- ❖ Ihinztargailu guztiak sarritan kalibratuko dira, butxatuta ez daudela ziurtatzeko.

- ❖ Butxatutako pitak aire konprimitu bidez libratuko dira eta inoiz ez ahoarekin putz eginda.
- ❖ Edozein konponketa egiten hasi aurretik, presio sistema arinduko da.
- ❖ Haizea baldin badabil, fumigazioa haizeari bizkarra emanda egingo da.
- ❖ Ez jan eta ez erre fumigatze lanak egiten ari diren bitartean, eta lanak amaitu eta gero garbitu ondo eskuak eta fumigazioaren eraginpean egon diren larruzal zatiak ere bai.
- ❖ Bero egiten duen sasoiaren goizeko lehen orduetan eta arratsaldeko azken orduetan egingo da fumigazioa.
- ❖ Gomendatzen da langileak gehienez egunean 4 ordu eta erdi egotea fumigatzen.
- ❖ Ekipoa denbora luzean erabili behar ez denean, garbitu egingo da osorik.
- ❖ Fumigatze ekipoaren garbiketa ureztatzeko urak edo putzuetako urak kutsatzeko arriskua ez dagoen toki batean egingo da.
- ❖ Ekipoak kanpotik zein barrutik garbituko dira, xaboi ur ugarirekin; dena den, erabilitako produktuaren segurtasun fitxan datozen jarraibideak beteko dira.
- ❖ Produktu fitosanitarioak eta horiek aplikatzeko erabiliko diren tresnak horretarako espresuki erabiliko den lokal batean gordeko dira, beti txukun eta garbi.
- ❖ Produktu fitosanitarioak beren jatorrizko ontzietan gordeko dira.
- ❖ Bukatutako ontziak ez dira beste gauza baterako erabiliko; neurri hori beteko dela bermatzeko, behin bukatuta ontzietan zuloak egingo zaizkie, berriro erabili ezin izateko, eta ez da inola ere sua erabiliko ontziak suntsitzeko.
- ❖ Jantzia erabiltzen ari garela, ez dizkiogu mahukak batuko, eta praken zangoak botetatik kanpo edukiko dira eta eskularruen eskumuturrak bilduta edukiko dira likidoak labaindu eta trajerantz joan ez daitezela.

❖ Produktu fitosanitarioen manipulazioan eta fumigatze lanak egiten diren bitartean, kontuan izan erabiltzen ari diren produktuen jarraibideak. Honako babes ekipamendu hauek erabiliko dira norberaren babesarako:

- Jantzi iragazgaitza, mahuka luzeekin eta lepoarekin.
- Gomazko bota altuak.
- Gomazko eskularru altuak.
- Betaurreko hermetikoak
- Arnasbideak babesteko maskara egokiak
- Hegal zabaleko kapela iragazgaitza.

❖ Lanaldiaren bukaeran, arropa garbitu egingo da eta babes elementuak garbituko dira.

❖ Erabiliko den produktuaren toxikotasunaren arabera, tratatuko den eremua mugatu eta seinalatzeko premia erabakiko da, bertara berriro sartzeko epeak dirauen bitartean.

#### SAIAK GARBITZEKO MAKINA ERABILTZEKO

❖ Egunero, eta erabili aurretik, makina berrikusi egingo da, mugitzen diren zatietan arreta berezia jarrita. Arriskuak ekarri ditzaketen anomaliak ikusiz gero, hierarkian nagusi hurrena den arduradunari jakinaraziko zaizkio.

❖ Diseinuan ezarri zaizkion eragiketarako baino ezingo da erabili.

❖ Makina erabiltzen ari garenean, gehiegi berotzea saihestuko dugu eta babesgailuak eta babesak jarrita edukiko ditugu, eta makina "puntu hileko" posizioan dagoela jarriko da abian.

❖ Pertsonak dauden tokiraino 10 metro utziko dira gutxienez, segurtasun gisa.

❖ Ezin izango da inola ere ebaketa gunea ukitu makina martxan dagoen bitartean.

❖ Erregai depositua betetzeko motorra geldi egon beharko da.

❖ Ez da erreko erregai depositua betetzen ari denean eta makinan mantentze lanak egiten ari direnean.

❖ Honako babes jantzi hauek erabiliko dira: lanjantzia, oinetakoak, mantala, eskularruak, zango babesak.

❖ Sasiak kentzeko makina eramangarri bat manipulatzin ari diren langileek aurpegirako babes pantaila gardena, gerrikoa, arnesa eta entzumena babesteko gailuak ere erabiliko dituzte.

❖ Ahal den guztietan, lan egingo den gunea bustiko da, hautsa harrotu ez dadin. Hori egitea posible ez bada, babes betaurrekoak eta maskarak erabiliko dira.

❖ Ebakitzeko erremintarekin ari zarela ez galdu inoiz arreta. .

#### TRAKTOREAK ETA DUNPERRAK ERABILTZEKO

❖ Diseinatutako lanetarako baino ez dira erabiliko, eta enpresaren baimena eta beharrezko prestakuntza dutenek baino ezingo dituzte erabili.

❖ Erabili aurretik, honako hauen egoera begiratu da: pneumatikoak, ezkutuak, plataformak eta sarrerako eskailera mailak, erregaiaren eta sistema hidraulikoaren hodiak, ikusgarritasuna, frenoak, direkzioa, argiztapena, eserlekuaren doikuntza, palankak eta etengailuak, eta indar hartunearen babesa.

❖ Erregai depositua betetzen ari dela, ez da erreko ezta babestu gabeko sugarririk hurbilduko ere, suterik edo leherketarik gertatzea ekiditeko.

❖ Arropa estua eramango da, bai eta oinetako ez labainkorrak ere, eta lokarriak ondo lotuta.

❖ Ibilgailua gelditu egiten denean, puntu hileko posizioan jarriko da eta eskuko frenoari eragingo zaio. Ibilgailua maldan dagoela geratzen bada, sartu palanka 1. martxan edo atzerako martxan (maldaren noranzkoaren arabera). Batzuetan, beharrezkoa izan daiteke altxagarriak erabiltzea

❖ Dunper edo iraulki kamioietara ez da pertsonarik igoko, eta ez da gaintutako ere gehienezko karga

© FREMAP

Ctra. de Pozuelo nº 61  
28220 Majadahonda (Madrid)

Arriskuen prebentziorako gomendioak

## LOREZAINZAKO LANETAN



  
**FREMAP**  
Mutua Colaboradora con la  
Seguridad Social nº 61



PLAN DE ACTIVIDADES PREVENTIVAS DE LA SEGURIDAD SOCIAL 2021